



## Tradizioa berritzera datorren euskal ezkontza

**Abadiño** • Zapatu honetan euskal ezkontza tradizionala antzetzuko dute Abadiñon, lau urterik behin egiten duten ospakizuna. Aurten, lehenengoz, sexu bereko bikote baten ezteia irudikatuko dute. Ekaitz Herrera Azkarraga abadiñarrak eta Koldo Rodríguez Akarregi lekeitiarrak osaturiko bikotea herritarren aurrean ezkonduko da, modu sinbolikoan. Kalejirak 12:30ean irtengo du, Ferialekutik. • 8



## Bulegok kontzertua joko du Plateruenean, bertan entseguetarako aterpe hartu eta gero

**Musika** • Bulego talde azkoitiarrak lau egunez hartu du aterpe Plateruenean, udako birako emanaldiak prestatzeko; ikuskizunari tenperatura hartzeko, kontzertua emango dute gaur, Plateruenean bertan, 21:30ean. "Jendeak ez du esperoko eman dugun aldaketa", azaldu dute. • 19

## Azken txanpa udaletxeetarako eta Batzar Nagusietarako lasterketan



**Hauteskundeak** • Alderdi politikoaren arteko norgehiagoka aurrera doa eskualdean. Kanpainaren erdia igarota, batzuk eta besteak haien proposamen politikoak defendatzen dabil-tza herririk herri. Maiatzaren 28an amaituko da lehia, hautes-tontzietan. • 2-3



## Omenaldia gerra ziblean hil ziren zornotzarrei

**Zornotza** • Domekan, 12:00etan, oroimen ekitaldia egingo dute Zelaieta parkean. Pedro Iparragirrek lore eskaintza egingo die gerran hildako herrikideei. • 5

0INARRIZKO Z.	ERDI MAILAKO Z.	GOI MAILAKO Z.	ESPEZIALIZAZIOA
 Elementu Metalikoen Fabrikazioa	 Mekanizazioa	 Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	 Birikletak Muntatzea, Prestatzea eta Mantentzea
 Elektrizitatea	 Instalazio Elektriko eta Automatikoak	 Sist. Elektrotrekoak eta Automatizatuak	 Automatizazioa eta Robotika Industrial
	 Administrazio Kudeaketa	 Administrazioa eta Finantzak	 IT-a Zibonegurtasuna

Ordua Hartu 

# LANBIDE HEZIKETA

## Aurrematrikulak

Maiatzak 8tik 26ra

946810058 [www.maristak.com](http://www.maristak.com)

## EAJk Bizkaiko bidegorri sarea osatzen jarraitzeko konpromisoa erakutsi du

**ZORNOTZA • J.D.**

EAJk ekitaldia egin zuen egue-  
nean Zornotzan, bizipista be-  
rriaren ondoan. Etorkezun iraun-  
korrago baterako trantsizioan,  
mugikortasuna "elementu zen-  
trala" dela eta bizikleta bidezko  
mugikortasuna sustatzen jarrai-  
tuko dutela azaldu zuen Elix-  
abete Etxanobek, EAJren ahal-  
dun nagusi izateko hautagaiak. On-  
doren, Ainhoa Salterain Zorno-  
tzako alkategaiak Zornotzarako

dituzten proiektuak zerrendatu  
zitu. Esaterako, Zornotza La-  
rrabetzu eta Txorierrigaz lotuko  
dituen bidegorrian beste zati bi  
eraikiko dira, 7,9 kilometroko  
luzerakoak. Bestalde, Iñaki Toto-  
rikaguena Iurretako alkategaiak  
aurreratu zuenez, Santa Apolo-  
niako bidegorria Arandia eta Be-  
rezi inguruagaz lotuko dute, eta  
Akiñenan espaloiak eta errepide  
gaineko oinezko pasabidea egin-  
go dituzte.



EAJko ordezkariak bizipistaren ondoan.

## Herri proiektuagaz jarraitzeko, EH Bilduk alkatetza berretsi gura du Elorrión

**ELORRIO • A.M.**

EH Bilduk ekitaldia egin zuen mar-  
titzenean Elorrioko plazan. Iker  
Casanova legebiltzarkideak eta  
Arkaitz Rodríguez Sortuko kide eta  
legebiltzarkideak berba egin zuten,  
baita Julene Lazkano Elorrioko  
alkategaiak ere. Lazkanoren berbe-  
tan, EH Bilduk alkatetza "berretsi"  
gura du, azken legegintzaldi bietan  
hasitako proiektuari jarraipena  
emateko. Elorriok "herri bizi bat  
izaten jarraitzeko" lan egingo dutela

ere esan zuten, eta, besteak beste,  
gazteek etxebizitza topatzeko duten  
arazoa konpontzea lehentasunez-  
koa dela. Casanovak azaldu zuen,  
Bizkaiko Ahal-dun Nagusia bera  
izanez gero "governantza eredu  
berri bat" ekarriko duela. "Jendea  
haserre dago politikarekin, uste du  
ez dituela herritarren arazoak kon-  
pontzen, eta hori arriskutsua da.  
Indibidualismoa gora doa, eta baita  
arriskutsuagoak diren jarrerak ere",  
gaineratu zuen.



Elorrión martitzenean egindako ekitaldia.

## Elkarrekin Podemosek ekitaldia antolatu du LGBTIfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunean

**DURANGO • E.H.**

Elkarrekin Podemosek hauteskun-  
de kanpainako ekitaldia egin zuen  
eguzten arratsaldean Durangon.  
Santa Anako plazan egin zuten  
agerraldia David Hernández alkate-  
gaiak, Iker Mojóñ diputatugaiak eta  
Miren Gorrotxategi legebiltzarki-  
deak. David Hernández Durangoko  
alkategaiak adierazi du "kosta ahala  
kosta defendatuko duela ostadar  
bandera".

"Trans emakumeak emakumeak  
dira", defendatu du Mojonek, Irene  
Montero Espainiako Berdintasun  
ministra eta *Trans Legea* deiturikoa  
aipatuta. Miren Gorrotxategi lege-  
biltzarkideak, bestalde, "gorroto  
delituen gorakada" izan zuen ber-  
bagai. "2020 eta 2021 artean %50 igo  
ziren gorroto delituak. Horietatik  
laurdenak sexu identitateengaitiko  
gorroto delituak izan ziren", azaldu  
zuen.



Elkarrekin Podemoseko kideak Durangon egindako ekitaldian.

## Herriaren Eskubideak Tabiran ospitale bat eraikitzeko eskatu dio Osakidetza

**DURANGO • E.H.**

Herriaren Eskubideak ospitale bat  
eraikitzeko eskatu dio Osakide-  
tzari. Tabiran, Fundifes lantegia  
izandakoaren lurretan kokatzeko  
eskatu dio. Jorge Varela hautagaiak  
azpimarratu du "askotan" batu  
direla Osakidetzako langileekin,  
"euren iritzia jasotzeko". Azaldu  
dute sei urte daramatzatela "mu-  
rrizketak bertan behera uzteko"  
eta "oinarrizko osasun zerbitzuak

indartzeko" eskatzen. Eta eskari  
horien artean sartu dute, hain  
zuzen ere, ospitale bat eraikitzeko  
proposamena. Bestalde, hautes-  
kundeetarako kanpaina egiteko  
"erakunde publikoak erabiltzea"  
leporatu diote EAJri. Herriaren  
Eskubidearen iritziz, Osakidetzak  
[eskualdeko beharrezan] buruz  
aurkezturiko txostenak "EAJren  
interesei soilik erantzuten die" eta  
"irain" egiten die durangarrei.



Herriaren Eskubidearen zerrendagaiak.

## PSE-EEK hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko neurriak hartu gura ditu

**DURANGO • E.H.**

PSE-EE alderdiko ordezkariak Durangoko Aramotz auzoa bisitatu zuten astelehenean. Jesica Ruiz Durangoko hautagaia, Iñaki Arriola sailburua, eta Alberto Álvarez Batzar Nagusietarako hautagaia batu ziren. Ruizen iritziz, "azken urteotan" Durangon "erabateko etena" egon da etxebizitza politikei dagokienez: "Guk

eraikinak birgaitu eta alokairu soziala indartu gura dugu. Durangon 1.400-1.500 etxebizitza huts daude. Etxebizitza horiek merkatura atera gura ditugu". Arriolak Eusko Jaurlaritzako Bizigune programa nabarmendu zuen: "Alokairurako etxebizitzak sortzea aukera ederra da, baina hori bezain inportantea da hutsik daudenak merkaturatzea".



Alberto Álvarez, Jesica Ruiz eta Iñaki Arriola asteleheneko ekitaldian.

## Durangaldeko alderdiek hauteskunde kanpainako bigarren asteari ekin diote

Ekitaldiz beteriko aste baten ostean, azken txanpan sartu dira maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskundeetarako

**DURANGALDEA • JONE GUENETXEA**

Hauteskunde kanpaina aurrera doa. Lehenengo astea pasatuta, alderdiek beste astebete daukate udal eta foru hauteskundeetarako proposamenak ezagutarazteko. Gaur arratsaldean, Eusko Alderdi jeltzaleak kanpainako ekitaldi nagusia egingo du Durangoko Ezkurdin. Iñigo Urkullu

lehendakariak, Andoni Ortuzarrek, Elixabete Etxanobek eta Mireia Elkoroiribe Durangoko alkategaiak parte hartuko dute. Bestalde, maiatzaren 22an Zornotzan egingo du mitina EAJk. Elixabete Etxanobek, Itxaso Atutxak eta Ainhoa Salterain Zornotzako alkategaiak parte hartuko dute, Zelaieta parkean, 19:30ean.

EH Bilduk ere ekitaldiak aurreikusi ditu datozen egunetarako. Maiatzaren 22an ekitaldi nazionala egingo dute Durangon. Arnaldo Otegi, Iker Casanova eta Ima Garrastatxu Durangoko

**Ordezkarri politikoek agendak ekitaldiz beterik daude kanpainaren azken egun hauetan**

alkategaia egongo dira ekitaldi horretan, 19:00etan, Ezkurdin. Euria egiten badu merkatu plazara lekualdatuko dute. Kanpainako azken ekitaldia Zaldibarren egingo dute. Iker Casanovak, Idurre Bidegurenak eta Eneritz Azpitarte alkategaia parte hartuko dute, 18:00etan, udaletxeko plazan.




## Hauteskundeetako propaganda ipintzeko egin den espazio banaketa salatu du STOP plataformak

**DURANGALDEA • J.G.**

STOP plataformak salaketa ipini du Durango-Arratia Hauteskunde Batzordean. Prentsa oharrean azaldu dutenez, hauteskundeetako propaganda ipintzeko guneen espazio banaketa "arbitrariora" salatu dute. "Espazio banaketa

horrek mesede egiten die formazio tradizionalistei, eta 'besteak' atalean dauden alderdiei leku txiki bat eskaintzen diete", esan dute. Espazio hauen banaketa aurreko hauteskundeetako emaitzen arabera egiteak "alderdi haien aldeko jarrera" erakusten duela

nabarmendu dute. Arrazoi horiek argudiatuta, espazio hauek modu ekitatiboan banatzea eskatu dute. Gainera, berehalako neurriak hartzea exijitu dute. "Gure ustez, hauteskunde bakoitza mapa politikoaren hasiera bat da", gaineratu dute.



# Okm:

batzen gaituen distantzia

abantaila guztiak hemen >



Egin zaitez anbotokide!

30€ urtean!

**anboto**  
kide

# "Río de Oro leku bat egitea lortu du Durangaldeko elkarterik inportanteenen artean"

Elkarteak 10. urteurrena ospatuko du zapatuan. 11:00etan hasita, jaia egingo dute Landako Gunean eta Plateruenean



**Mikel Del Arco Zumarraga**

Río de Oro elkarte

DURANGO | 1988

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

**Mikel Del Arco Zumarraga (Durango, 1988) Río de Oro elkarte koordina-tzailea da. Jaialdiko egitaraua astekari honen Agendan kontsultatu daiteke.**

**Prest zapatuko jaialdirako?**

Bai, oso gogotsu gaude, ilusio handia dugu. Izurria dela eta, urte batzuk igaro dira jai hau azkenengoz antolatu genuenetik. Horrenbestez, bai, prest gaude jaiari berrekiteko, eta jendea badabil mugitzen. Paella lehiaketarako interesa pizten doa, eta baita bertsiio lehiaketarako interesa ere.

**Aurtengoa, gainera, berezia izango da. Río de Oro 10 urte bete ditu.**

Badirudi atzo hasi ginela honegaz guztiagaz. Eboluzioa oso polita izan da. Asko hazi gara. Lehenengo proiektua 2013an ipini genuen martxan, eta momentu honetan lau proiektu ditugu esku artean.

**Zeintzuk dira martxan dituzuen lau proiektu horiek?**

Bat Izurtzako aterpetxea da. Ber-

tan, aniztasun funtzionala duten ume sahararrak hartzen ditugu harreran, udan. Bigarrena Karabana Solidarioa da; laguntza humanitarioa batu eta bidaltzen dugu. Hirugarrena, Oporrak Banean. Durangaldeko etxeetan, udan, ume sahararak hartzeko programa. Laugarrena Edaletxea da, Ermuan daukagun harrera etxea. Osasun arazoak dituzten umeak eta haien amak hartzen ditugu. Hona ekarri, beharrezko osasun tratamendua eman, ebakuntza egin eta badoaz.

**Zein da 10 urte hauetako balantzea? Zelan baloratzen dute herritarrek zuek egindako lana?**

Proiektu inportanteak ditugu esku artean, eta, adibidez, Saharako herriaren inguruko dimentsioa hartu dugu. Eskualdeari dagokionez, esango nuke leku bat lortu dugula Gobernu Kanpoko Erakunderik inportanteenen artean. Herritarrek geroago eta gehiago ezagutzen gaituzte. Parte har-

tzen dute, lagundu egiten digute, bultzatu egiten gaituzte. Horiek barik ez ginen hona helduko. Gero, boluntarioen lana dago. Haien arteko sarea giltzarria da elkar-tearentzat.

**“Badirudi atzo hasi ginela honegaz guztiagaz. Eboluzioa oso polita da, asko hazi gara”**

MIKEL DEL ARCO

**Zapatuko jaia dela eta, zer diotsue jendeak?**

Igartzen dugu jendeari interesa piztu zaiola. Bertsiio lehiaketari buruz galdetzen digute, paella lehiaketan izena eman dute... Euri kontuak direla eta, jaialdiaren zati nagusia Landako Gunearen barruan egingo dugu. Umeentzako puzgarriekin hasiko gara, eta sushi tailerragaz jarraituko dugu. Gauean bertsiio lehiaketa izango dugu Plateruenean. Txosna bat ere izango dugu, Landako Gunean. Komunitate sahararreko lagun asko etorriko da jaira. Berezia izango da, aurtun guk 10 urte egiteaz gainera, 50 urte bete direlako Fronte Polisarioa eratu zenetik.

## Aspaldi desagerturiko eraikin baten zimenduak topatu dituzte Tabirako elizaren aurrealdean

Hipotesien arabera, arrastook Durangoko Jaunaren garai bateko dorretxearenak izan daitezke, Tabira jauregikoak

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Historian eta arkeologian aditua den talde batek Durangoko Udalarentzat egindako ikerketan lehenengo emaitzak agertu dira. Ikerlariak baieztatu dutenez, Tabirako elizaren aurrealdean -elizpearen eta errepide aldera egiten duen belardiaren arteko eremuan-, garai bateko eraikin baten arrastoak daude lurperatuta. Historiaren Errege Akademiako Luis Valdés kideak

azaldu du "behera botatako eraikin baten zimenduak" direla, "9,5 x 7,5 metroko oinarria dutenak". Dena dela, Valdesek adierazi du oraingoz ezin dutela oinarri hori zein eraikinena den baieztatu. Arrastook georadar bidez lokalizatu dituzte, eta orain hainbat hipotesi dute esku artean. Euretari baten arabera, arrastook Durangoko Jaunaren garai bateko dorretxeoak izan daitezke, Tabira izenez dokumentatu-

riko jauregikoak. Gonzalo de Ota-lorak 1634an idatzitako testigantza aipatu du Valdesek, idatzi horretan dorretxea elizaren aurrean zegoela aipatzen da eta.

1975era arte, baserri bat egon zen Tabirako elizaren aurre-aurrean. Baserria bota egin zuten, eta ikerketaren lehenengo emaitzak jaso du lurpean topaturiko arrastoak ez direla baserriarenak, baserriaren eta lurpeko zimenduen dimentsioak ez datozelako bat. Aurrerago indusketa arkeologikoak egingo dituztela aurreratu dute.



Arrastoak lurpean daude, elizaren aurrean, errepide aldera egiten zuen eremuan.

**anboto** >

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2023ko maiatzaren 19a  
21. urtea - 936. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Beste hitzordu bat "bizitzak erdigunean" ipintzen segitzeko

Durango mugimendu feministak bilerara deitu du. Domekan egingo dute, Andragunean, 11:00etan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durango mugimendu feministak hirugarren hitzordu bat prestatu du zaintzak erdigunean

ipintzeko dinamikaren barruan. Domeka honetan, III. bilera egingo dute Andragunean. 11:00etan izango da.



Bigarren bilera egin zuteneko talde argazkia.

## Hasi dituzte Durangoko Urki-Hegoalde bidearen azken zatiko lanak

Saihesbideagaz, herri barruko trafikoa gutxitu gura dute



Lanak amaituta, saihesbideak honako itxura hau hartuko du.

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Durango Udalak jakinarazi duenez, martxan daude Urki-Hegoalde saihesbidea amaitzeko lanak. Errepide horri eskerrak, Durango kanpo eraztuna lotuta

geratuko da eta ibilgailuen herri barruko joan-etorriak gutxituko dira. Saihesbidea amaitzen denean, enpresak Eguzkitzako industrialdera erakartzea gura du udalak.

## Pedro Iparragirre zornotzarrak gerra zibilean hildako herrikideak omenduko ditu domekan

Iparragirrek 6 urte zituen Amorebietaren eta Etxanoren kontrako bonbardaketak gertatu zirenean. Oroimen ekitaldia domekan izango da, 12:00etan, Zelaietan

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

1937ko maiatzaren 18an tropa frankistek Amorebieta eta Etxano hartu zituzten. Data horretatik 86 urte igaro direla kontuan hartuta, Zornoza Kultura eta Arte Elkarteak oroimen ekitaldia antolatu du. Aurten, Pedro Iparragirre Etxebarria zornotzarrak izango du lore eskaintza egiteko ardura. "Iparrag

girek 6 urte zituen Amorebieta eta Etxano bonbardatu zituztenean. Gerran bizirik iraun zuen umeetarik bat da. Zornotzatik alde egin eta inguruko herrietan hartu zuen babesa", azaldu du Zornoza elkarte-kide Kepa Jon Aranek. Gogora Institutuaren bonbardaketen atlasak jasotzen duenez, frankistek 24 bider bonbardatu zuten

Zornotza. Erasoetan Italiako eta Alemaniako hegazkinek parte hartu zuten.

Ekitaldia domekan egingo dute, 12:00etan, Zelaieta parkean. Alaiak eta Zornoza abesbatzek, Udabarri dantza taldeak, Udazken txistulari taldeak, eta Gogora Institutuko Aintzane Ezenarro zuzendariak parte hartuko dute.



Miren Andone Zarandonak egin zuen iazko lore eskaintza. 5 urte zituen frankistek herria hartu zutenean.

## Teilatuari eskerrak, Zelaietako txintxaunak euria egiten duenean ere egongo dira erabilgarri

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako Udalak amaitu ditu Zelaietako jolasgunea estaltzeko lanak. Txintxaunetan zurezko teilatua ipini dute, laukizuzen itxurakoa. Horrenbestez, euria izanda ere, umeak urte osoan jolastu ahal izango dira txintxaunetan. 610 metro karratuko eremua estali dute guztira. Teilatuak izpi ultramoreen kontrako geruza bat dauka, eguzki erradiazioa eta beroa blokeatzeko. Era berean, LED teknologia darabilten argi tirak ipini dituzte, espazioa argitzeko. Lanek 523.000 euroko aurrekontua izan dute.



610 metro karratuko eremua estali dute.

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**  
+2.000 bezerok gugan dute konfiantza

946 523 935  
bertako.eus

# Mursegok kontzertua emango du Angurreta Harrobian, Mañariko Kultur Astearen barruan

Emanaldiaren kokalekua aldatu egin daiteke. Eguraldi txarra egiten badu, Errose Bustintza kultur etxea tokialdatuko dute

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Mañarian hainbat ekintza egingo dute, asteburuan, Kultur Asteari amaiera emateko. Esaterako, zapatu honetan, 19:00etan, Maite Arroitauregi musikariak —Mursego lez ezagunagoa da— kontzertua emango du Angurreta Harrobian. Mañariko harrobi abandonatu zena arte garaikidea lantzeko espazio berri lez berreskuratu zuten Durangaldeko hainbat artistek 2021ean, eta, aurten, Kultur Astean bertan izango da Mursegoren kontzertua.

Hala ere, eguraldiaren arabera izango da hori. Eguraldi txarra egiten badu, kontzertua Errose Bustintza kultur etxeko azken solairura tokialdatuko dute, udal arduradunek jakinarazi dutenez. Sarrerak aurretik eskuratu behar dira. Kontzertua kultur etxean egiten bada, sarrerak agortuta daude, edukiera txikiagoa du eta.

Bestalde, gaur goizean Angurreta Harrobiko azpiegitura berria

inauguratu dute Tadanori Yamaguchi eskultorearen hainbat eskulturagaz. Yamaguchi japoniarrak 20 urte daramatza Asturiasen bizitzen, eta munduko herrialde asko-

tan erakutsi ditu bere sorkuntzak. Inaugurazioaren ondoren, bisita gidatu bat egin dute.

Kultur Astea domekan amaituko da, Artisautza, Elikadura

eta Landare Azokagaz. 11:00etatik 14:30era, askotariko postuak egongo dira Mañariko plazan. Euskadiko Azpi-Gorri Azokaren VI. Lehiaketa ere egingo dute.



Angurreta Harrobia praktika artistiko berriak sortu eta erakusteko gune lez berreskuratu zuten eskualdeko hainbat artistek 2021ean.

## Lau gazta mota eta Garai garagardoa aukeran bihar, Mallabiko dastatzean

**MALLABIA • J.D.**

Mallabian gazta eta garagardo dastatzea egingo dute zapatu iluntzean, 18:00etatik 21:00etara, probalekuan. Aurten hirugarren aldian beteko duen ekitaldirako sarrera doakoa izango da.

Hiru gaztagile batuko dira, lau gazta motagaz: Mausitxa ardi gazta, Onandi ardi gazta, Axeleku behi gazta eta Egoitzako ahuntz gazta. Edariei dagokienez, Garain egindako garagardoa dastatzeko aukera egongo da.

Zapatuan beste hainbat ekimen ere egongo da Kultur Hamabostaldiaren barruan. Lehenengo, 09:00etan, irteera ornitologiko batean parte hartzeko aukera egongo da, Juankar Andresegaz eta Fernando Garitagoitiagaz. Mallabiko petrlean ipini dute hitzordua.

Horrez gainera, arratsaldean zehar, 'Monstruos de la Universal' izeneko taldeak Mallabiko kaleetako giroa animatuko du bere ikuskizunagaz.

## Izurtzan, Herriko Tabernaren kudeaketa esleitzeko lehiaketa hasi du udalak

Tabernagaz batera eraikin berean dagoen etxebizitza ere esleituko dute. 32 urtez tabernaren ardura izan dutenak ez dira berriro aurkeztuko, eta, beraz, kudeatzaile berria izango du

**IZURTZA • J.D.**

Izurtzako Herriko Tabernaren kudeaketa eta eraikin berean dagoen etxebizitzaren alokairua lehiaketa publikora ateratu ditu Izurtzako Udalak. Izan ere, maiatzaren amaieran iraungitzen da aurreko esleipena. Taberna 32 urtez kudeatu dutenak

ez dira berriro aurkeztuko, eta, beraz, arduradun berria izango du aurrerantzean. Hauetxek dira etxebizitzaren ezaugarriak: logelabi, egongela, sukaldea eta komuna.

Bost urterako esleipena da eta urtebeteko beste bost luzapen izan ditzake. Oinarri guztiak [\[tza.eus\]\(http://tza.eus\) webgunean daude: 'Udala' atala klikatu behar da; hor barruan, 'Kontratatzailearen profila' atalean, eta, azkenik, 'Euskadiko kontratazio publikoaren plataforma' atalean. Maiatzaren 31 da proposamenak aurkezteko azken eguna.](http://www.izur-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)



Herriko Taberna Izurtzako herriguneko plazan dago, udaletxearen ondoan.

## Otxandioko Udala ur-sare osoa digitalizatzen ahaleginduko da

URA agentziako deialdi batera aurkeztuko dute euren proiektua; sare osoa digitalizatu ahal izatea "aurrerapauso itzela" litzateke, Egoitz Gramendia alkatearen berbetan

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandion udalak du herriko ur-ziklo osoa kudeatzeko ardurara. Bada, orain, bide horretan beste pauso bat emateko aukera sortu zaie eta aprobetxatu egin gura dute. URA agentziak deialdi bat egin die 20.000 biztanletik beherako herriei uraren zikloaren digitalizazioan inbertsioak egiteko, eta Otxandioko Udalak bere proiektua aurkeztuko du.

"Une oro ur-sare osoa kontrolatuta izango genuke, momentu oro zer gertatzen den jakingo genuke sare osoan. Lehorteei aurre egiteko, esaterako, aurrerapauso itzela litzateke", adierazi du Egoitz Garmendia alkateak.

URAr aurkezturiko proiektuan, herriko ur-ziklo osoaren digitalizazioa sartuko dute: ura hartzen duten toki bietakoa —Atxin eta Iturrigorri—, uren

depositoetakoa —depositoen sarreran nahiz irteeran—, eta bien arteko sare orokor osoa. Digitalizazioak gaur egun duten baino askoz ere informazio gehiago emango lioke udalari. Ondorioz, kudeaketa erraztu

### Uraren ziklo osoa digitalizatzea sartzeko proiektuan; ur-hartuneak, depositoak eta hoditeria

eta eraginkortasuna hobetuko luke. Esaterako, herri barruan ur-ihes bat badago, toki zehatza identifikatzen lagunduko luke.

URA agentziak Otxandioko Udalak aurkezturiko proposamena onartzen badu, erakunde biek hitzarmen bat sinatuko dute digitalizazioaren proiektua finantzatzeko.

# Osasun gida



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Zaintza osoa hartzeko klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,  
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA  
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR  
DENTEKNOLOGIA DAUKAGU!

Orduak:  
Astelehenetik ostirako: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunegia: 10:00tik hasita

944 14 80 36 | 626 10 30 30  
Astelehenetik ostirako 15. 48200 Durango, Bizkaia  
www.dclinicadentalviteri.com

 **Optometria**  
PSE: 162/13

Kalea  
Zabala  
Azumendi  
7067 her. z/b.

**keinu**

- Optometriari teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**pröktós.clinic**

Uzki eta zoru-pelbikoko  
patologiaren tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200  
Durango, Bizkaia  
(MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -  
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -  
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA  
IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI -  
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO  
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

( Muruetatorre, 2C blokea, beheka -  
48200 Durango )  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

 **Podologia**  
PSE: 214/06

**Ainara  
Urreta  
Jainaga**

GINETAKO PATOLOGIARIK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
GINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka  
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**  
FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA  
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko Masajak eskaintzen ditugu.  
Solo personalizatuen dira,  
luzko taldeetan.

Tzahararren 13, 4. blokea  
beheka eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñon lau urterik behin egiten dute euskal ezkontza, Olinpiar Jokoak egiten diren antzera, eta zapatu honetan izango da hurrengo, Zelaletako kaleetan. Aurten berritasun nagusi bat du ezkontzak: sexu bereko bikoteak antzetzeko du ezteia. Ekaitz Herrera Azkarraga abadiñarra eta Koldo Rodríguez Akarregi lekeitiarra modu sinbolikoan ezkonduko dira herritarren aurrean. Ospakizuna 12:00etan hasiko da, Ferialekuan.

**Biharko ospakizuna dela eta, urduri zaudete?**

**Ekaitz Herrera Azkarraga:** Urduri, baina gogotsu. Euskal ezkontza oso polita izaten da, herritarren artean giro ederra sortzen da eta. Badu zerbaite berezia. Eta aurtengoa ere ederra izango delakoan gaude. Orain artean, ezkontza bitan parte hartu dut: dantzari legez aldi batean eta notario legez bestean. Eta oraingoan, hara! Ezkongai legez!

**Koldo, zuretzat lehenengo aldiz izango da.**

**Koldo Rodríguez Akarregi:** Bai, eta badaukat urduritasun puntu hori. Gutxi gorabehera badaukat jaiaren nondik norakoaren berri, baina gero hor herritarren aurrean egotea beste kontu bat da. Dena dela, seguru nago jaiari eta urduritasun hori segituan uxatuko dudala.

**Zelan ailegatu zitzaizuen ezkongai papera jokatzeko proposamena?**

**E.H.A.:** Iazko santrokazak amaituta hasi zen dena. Antolatzaileetarikoa batek deitu, eta euskal ezkontza aurten ospatzea tokatzen zela esan

## “Ezkongaiak gu izango garen arren, hartu-emanak bizitzeko era asko dagoela jendarteratu gura dugu”

Abadiñoko euskal ezkontzan sexu bereko bikote baten ezteia irudikatuko dute aurten, lehenengoz



Koldo Rodríguez Akarregi eta Ekaitz Herrerak jokatzeko dute ezkongai papera.

zidan. Galdetu zidan ea Koldo eta biok elkarrengatik modu sinbolikoan ezkontzeko prest egongo ote ginen. Bikotea gara eta proposamenari buruz berba egin genuen. Berez, herritarren aurrean ikusgai egote horrek ez digu grazia berezirik egiten, baina proposamenagaz aurrera egitea pentsatu genuen, geure

komunitateagaitik, LGTB komunitatea bisibleago egiteagaitik, eta hartu-eman ereduak askotarikoak izan daitezkeela erakusteko.

**K.R.A.:** Bai, halantxik da. Ezkongaiak geu izango gara, baina gurea adibide bat baino ez dela jendarteratu gura dugu. Hartu-emanak ulertzeko eta bizitzeko modu ugari

dagoelako. Adibidez, gu barik, emakumezko bi ezkondu zitezkeen. Zergaitik ez? Azken finean, bikote heterosexual arautu horretatik kanpora era askotako hartu-emanak daudela aldarrikatu gura dugu. Badira hartu-eman itxiak, hartu-eman irekiak, adin tarte desberdineko hartu-emanak, genero definiturik bako gorputzak, bakarrik bizi direnak, bananduriko bikoteak, hirukoteak... Jendar-tea oso anitza da.

**Aniztasun horren beste erakusle bat emakumeek jokatzeko dutez papera izango dira.**

**E.H.A.:** Bai. Historia berrikustea besterik ez dago ikusteko gizona egon dela beti botere postuetan. Lehenagoko ezkontzetan gizona izaten ziren alkate zein notario. Eta, aurten, eredu hori ere irauliko dugu. Emakumeek egingo dituzte alkate eta notario lanak. Abadearena eta monagilloena izango dira irauliko ez diren postu bakarrak. Gauza askok, oraindino ere, bere horretan jarraitzen dute erakusgarri.

**Zer esango zeniekete euskal ezkontzara joango diren abadiñarrei?**

**E.H.A.:** Ondo pasatzeko. Herritarrok batzeko eta gozatzeko egun bat izango da. Beraz, disfrutatu, ospatu, egin barre, dantzatu.

**K.R.A.:** Badirudi ezkontzako bazkarian 480 bat lagun batuko garela. Menu herrikoia izango da, merkea. Ohiko ezkontza handien aldean, xume-xumea, baina, hori bai, baten batek bazkariagaitik 150 euro ordaindu gura badizkigu, bada, ez dugu ezetz esango (barrez).

## Elorriarrak herriko ehun komunitarioa sendotzen

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Elorrioko Udalak herrizaintza proiektuari hasiera eman zion 2022ko maiatzean. Lau helburugaz ekin zioten egitasmoari: bakarrik egon gura ez eta bakarrik dauden pertsonen detekzioa egitea eta haiei laguntzea, adinekoen bakardade sentazioa baretzea eta haien animo egoera hobetzea, erabiltzaileen gizarte harremanak sendotzea eta adineko pertsonen laguntzeko zerbitzu publikoen osagarri izatea.

Udaletik jakinarazi duteenez, 25 herrizainek eta zortzi bidelagunek parte hartu dute, eta zortzi izan dira telefono bidezko zerbitzua jaso duten erabiltzaileak.

Sustatzaile zein erabiltzaileek "oso modu positiboan" baloratu dute egitasmoa. Hori horrela, 2023-2024 ikasturtean Herrizaintza proiektuagaz aurrera egitea erabaki dute.

Herrizaintza proiektuan parte hartu gura dutenak [herrizaintza@elorrio.eus](mailto:herrizaintza@elorrio.eus) helbidera idatzi dezakete, edo 688 655 461 telefono zenbakira deitu.

## Eskolako beharrianak direla-eta botoak lortu gura izatea kritikatu du Atxondoko gurasoen elkarteak

"Lotsagarria iruditzen zaigu hauteskundeetan baino ez gogoratzea eskolagaz", kritikatu du guraso elkarteak

**ATXONDO • EKAITZ HERRERA**

Atxondoko eskolako gurasoen elkarteak kritikatu da udalagaz hauteskunde kanpainaren testuinguruan. "Eskolako guraso elkarteak lau urte eman ditu eskolako argiztapena eskatzen. Lau negu 17:00etatik aurrera eskolako patioa erabili ezinik. Eta orain, bat-batean, argiak ipiniko dituztela iragarri dute", azaldu dute ohar batean. "Lotsagarria iruditzen zaigu lau urtean eskolari bizkarra eman eta gero, hauteskundeetan baino ez gogoratzea eskolagaz, eta eskolaren beharrianekin jolastea botoak lortzeko", azaldu dute.

Baina ez da elkarteak plazaratu duen kritika bakarra. Eskolak "berdegunerik eta sukaldarik barik" jarraitzen duela gaineratu dute gurasoek. Haien ustez, udalak "ez

du zilegitasunik egiten dabilen promesak beteko dituela esateko". Abiadura Handiko Trena egiteko kamioien joan-etorriak direla eta, umeak "arriskuan" ipini direla ere kritikatu dute.

Bestalde, Atxondoko eskolako familiek sukaldaria gura dutela eta uda honetan obrak hastea gura dutela azpimarratu dute.

Bere aldetik, Atxondoko Udalak ohar baten bitartez jakinarazi du

eskola zaharraren eraikina birgaitzeko lanak esleitu dituela, eta bertan egokituko dituela ludoteka eta haurreskola. Eta, oharrean azaldu dutenez, Jaurilaritzak baieztatu du sukalde berria esleitu dela.



## Herriko hainbat eragile eta herritarrek kultura mahaia sortu dute Atxondon

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko hainbat eragile eta herritarrek kultura mahaia sortu dute. "Herrian zegoen beharrian bati erantzunez, modu desberdinetan kulturaren, aisia eta kirolean eragiten ari garen talde eta norbanakoak gara", azaldu dute. Talde berri honek hainbat helburu du. Alde batek, herriko eragile eta taldeen arteko saretzea; bestetik, kultur agenda bateratu bat sortzea; eta, azkenik, herriko kultura dinamizatzea.

Hurrengo batzarra ekainaren 5ean egingo dute, 19:00etan, udal liburutegian. Herritarrei foro zabal honetara bertaratzeko gonbita egin diete. "Foro zabal eta parte hartzailea izatea gura dugu", gaineratu dute.





**EGINGO  
DUGU.**

# Mait duzun Bizkaia

**Bizitzak ez  
du preziorik.**

*Fakturek bizitza  
baldintzatu ez  
diezaguten.*

Bozkatu

**ehbildu**



**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## MAIATZEKO ZOZKETAK



Errigorako otzara.



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

## IRABAZLEAK

Kelonia eta Itsasoa antzeziana:

Itsaso Berroeta

Jatordua Uxarten:

Meria Lopez Castillo

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Gaur hasiko dira Berrizko Andikoa auzoko Asentzio jaiak, Donien Atxa jasota

Gaur hasiko dituzte jaiak, maiatzak 19, 18:00etan; 20:00etan Haize Arrosa taldearen kontzertua egongo da

**BERRIZ • A. M.**

Asentzio jaiak ospatuko dituzte gaurtik aurrera Andikoan. 18:00etan altxako dute Donien Atxa, eta, ondoren, Haize Arrosa taldeak kontzertua joko du. Haize Arrosa taldeak martxoan aurkeztu zuen bere lehenengo singlea: *Tortolaraino*; ibilbide laburreko taldea

izan arren, musikariek esperientzia handia dute. 90eko hamarkadan Ene Bada taldeko kide izan ziren eta, besteak beste; Eneritz Gorrotxategik, Edurtzeta Aniak, Markos Murillok, David Vallejak eta Peio Agirrek osatzen dute taldea. *Tortolarainoren* bideoklipa Iker Villak zuzendu du, eta Onintza

Enbeitak eta Ana Goitiak ere parte hartu dute bertan.

Zapatuan kronoigoera egingo dute, 17:00etan; Txululu musika jartzailea arduratuko da ekitaldia girtzeaz; 20:00etan, Idoia Barcelok eta Miren Amurizak *Herri txiki, auzo handi* gidatuko dute, eta Onintza Enbeitak eta Unai Enbeitak bertotan egingo dute. Domekarako egun osoko egitaraua prestatu dute auzoan. 12:00etan, meza egingo dute; ondoren, Iremiñe dantza taldeko kideek dantza erakustaldia egingo dute; arratsaldean, umeentzako jolasak eta txokolatada, erromeria (Mirarigaz eta Aintzanegaz), eta bolo-joko txapelketa egongo dira. Asentzio jaiak borobiltzeko, maiatzaren 27an umeentzako oihail tailerra eta ikuskizuna egongo dira.



Haize Arrosa.

## Elkartasunezko zumba maratonia egingo dute Zaldibarren

Mugi Zaitetz Bizitza Osasungarrirako elkarteak antolatu du ekimena, ekainaren 4rako; 11:30etik 13:30era egingo dute



Eskolako kiroldegian egingo dute zumba maratonia.

**ZALDIBAR • A. M.**

Zaldibarko Mugi Zaitetz Bizitza Osasungarrirako elkarteak eta Bizkaiko Elikagaien Bankuak elkartasun ekimena ipini dute martxan. Ekainaren 4an Zumbatoia egingo dute, zumba maratonia. 11:30ean hasita, ordu biko ekitaldia izango da eta sei monitoren laguntza izango dute. Monitorea Ermukoak, Eibarkoak, Elorriokoak, Zaldibarkoak, Gallartakoak eta Bilbokoak dira. Dinamizatzaile horiek doan parte hartuko dutela nabarmendu gura izan dute antolatzaileek. Parte hartzaile bakoitzak galkorrak ez diren elikagaien kilo bi eraman beharko ditu, sarrera sinboliko legez.

Zumba maratonia Zaldibarko eskolako kiroldegian izango da. Antolatzaileek Zaldibarko Udalaren laguntza izan dute ekitaldia antolatzeko. Informazio gehiago sare sozialen bitartez zabalduko dute antolatzaileek.

**GARAI • JONE GUENETXEA**

Jantzari dokumentala proiektatuko dute, maiatzaren 20an, 18:30ean, Garaiko Elizabarrin. Tradizioa etenik bako aldaketa prozesu bat da. Hala ere, badira momentuko tradizioak mugiezintzat hartzen dituztenak. Dantza munduan, tradizioaren leihoak parekidetasunaren alde zabaltzen dituzte hainbat herritan. Jantzari dokumentalak gai honen inguruko gogoeta mahaigaineratzen du dantza aitzakia hartuta.

Iurretako Dantza Taldeak, Bideografik ekoiztetxeak eta ANBOTOk ekoiztitako ikus-entzunezkoan, Durangaldeko hainbat dantza taldeak kideen bitartez genero ikuspegia lantzen dute. Oinarrian, Iurretan antolatzen duten *Urrijena* dantza jaialdia dago. Ospakizun horretan herriko dantza talde guztiek parte hartzen dute. 2018an, lehenengoz, dantzari horien guztien artean talde parekide batek parte hartu zuen.

Miren Bikandi Iurretako dantzaria zena dokumentaleko beste protagonistetariko bat da. Bere sasoian, dantzak ikasi arren ezin izan zuen sekula ere plazara irten. Baina bere ezagutzak dantzen pausoak berreskuratzen lagundu zuen orain dela hamarkada batzuk

## 'Jantzari' dokumentala proiektatuko dute Garaiko Elizabarrin, domekan

Dantza munduan tradizioa eta parekidetasuna lantzen dituen ikus-entzunezkoa ikusgai izango da maiatzaren 20an



'Jantzari' dokumentala Bilboko Cine Invisible jaialdian saritu zuten.

## Iurretako Etxegoren ingurua urbanizatzen hasi dira

Udalak 137.366 euroko aurrekontua du horretarako

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Etxego eraikinaren ingurua urbanizatzen hasi dira asteon. Orobiogitia Institutuaren ondoan dagoen espazio hori gazteleku lege erabiltzeko aukera aktibatzea dute helburu obrekin, eta udan amaituta egotea aurreikusitako dute. Eraikinaren ondoko kanpoko espazioa eraldatuko dute eta

"barruko geletan espazio lasai eta aktiboak garatzeko" proposamenari eutsiko diote. "Gaztelekuaren erabiltzaile gazteek dituzten beharrianak ezagutzeko egindako partaidetza-prozesu baten barruan baturiko proposamenak jaso dira proiektuan", udal arduradunek jakinarazi dituzte.



Etxego inguruko obrak Iurretan.

## Herri Urratsek elkartasunerako deia egin du Ipar Euskal Herriko ikastolek aurrera egin dezaten

Galera ekonomikoak "izugarriak" izan dira eta ekarpenak egiteko bideak zabaltzen dituzte

**DURANGALDEA • E.H.**

Joan zen domekan ospatu zuten Herri Urrats, Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko ikastolen aldeko jaia. Baina oso era mugatu eta sinboliko batean. Horregaitik, elkartasunerako deia egin dute. Diru laguntza kontu korrante bidez (Laboral Kutxa ES87 3035 0059 8205 9073 1197 / Kutxabank ES98 2095 5045 8710 6117 7332) zein Bizum bidez egin daiteke.



Domekako Herri Urratseko irudia.

## Gesbisak lanuzteak hasi ditu bariku eta astelehenetan

Gaur ekingo diete lanuzteei, 14:00etatik 17:00etara, eta astelehenean 06:00etatik 09:00etara izango dira

**DURANGALDEA • J.G.**

AP-8ko Bizkaiko tartea kudeatzen duen Gesbisa enpresako langileek hainbat greba egunetara deitu dute. Lanuzteak maiatzaren 19tik ekainaren 5era izango dira. Barikuetan 14:00etatik 17:00etara, eta astelehenetan 06:00etatik 09:00etara izango dira. Enpresa batzordeak salatu du Gesbisak ez duela inolako erantzunik eman. "Erosteko ahalmena %12,5etik gora galdu dugu eta

Gesbisak ez digu erdia ere eskaintzen. Era berean, ez dugu ulertzen Interbiaken jarrera; izan ere, orain 18 hilabetetik enkstatutako lan gatazka honetan konplizetat jotzen dugu, eta badirudi Aldundiaren mendeko enpresa publikoa eroso sentitzen dela diru publikoagaz patrika pribatuak aberasten, bizkaitarren lan- eta ekonomia-baldintzak prekarizatzea ahalbidetuz gainera".



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian





Besaide Dantza Taldearen urteurren jaiko argazkia.

## 200 bat dantzari batu dira Besaide Dantza Taldearen 55. urteurren jaian, Elorri

Gaur egun, 60 bat haur dabilta euskal dantzak ikasten Besaide Dantza Taldean, hamar bat begiralegaz

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Besaide Dantza Taldeak 55 urte bete ditu dagoeneko, eta urteurren berezi hori ospatzeko, egun osoko jaialdia egin zuten joan zen zapatuan. Urteotan dantza taldeetik pasatutako 200 bat dantzari parte hartu zuten dantza taldearen jaialdian, eta "giro paregabe" ibili ziren. Goizean dantza saioa egin zuten

frontoian, eta, gero, herri bazkarian batu ziren denak, gaur egun dabilta dantzariak eta Besaiden lehenago ibilitakoak. Arratsaldean, herriko tabernetatik poteoan ibili ziren, Gorka Valdes trikitilariagaz.

Gaur egun, 60 bat haur dabilta euskal dantzak ikasten Besaide Dantza Taldean, hamar bat begiralegaz.

## Durungaldea asteen

### Gizonezko bat atxilotu dute Durangon, emakume biri eraso egitea egotzita

**DURANGO** | Ertzaintzak 19 urteko gizonezko bat atxilotu zuen joan zen barikuan, emakume biren aurkako sexu eraso egitea zelakoan. Durangoko epaitegiko epaile batek hura espetxeratzeko agindua eman zuen maiatzaren 13an, eta Basauriko (Bizkaia) kartzelara eraman zuten.

Ertzaintzak ohar baten bitartez jakinarazi du joan den apirilaren 6an gertatu zirela erasoak, "ordu eta erdi inguruko tartean". Bata kalean gertatu zen, eta bestea etxebizitza batean.



### Durungaldeko "ondare ezkutua" ezagutzeko irteera, maiatzaren 20an

**DURANGALDEA** | Orain dela urtebete inguru Alpino Tabira mendi taldeak argitaratu zuen *Ermitak bide Durungaldea bizi* liburuagaz hasitako bideari jarraituta, hainbat ibilbide proposatu dute 2023ko ekintzen egutegian. Hitzordu berria, "ondare ezkutua bistaratzea", maiatzaren 20ko zapatuan izango da. Oraingo honetan, Berriz, Elorrio, Abadiño eta Durangotik zehar ibiliko dira. Irteera puntua Berriz izango da eta trenetxe helduko dira bertara. Zeharkaldia Durangon amaituko da.



### Artisau eta sortzaileen azoka egingo dute domekan, maiatzak 21, Arrazolan

**ATXONDO** | Eguraldi txarragaitik apiril amaieran egin ezin izan zuten artisau eta sortzaileen azoka egingo dute domekan, maiatzak 21, Arrazolan. Amillenako kideek eta Eixukoek antolatu dute azoka, eta eskualdeko artisau eta sortzaileen lanak ikusi eta erosteko aukera egingo da. Azoka girotzeko, DJ bat egingo da: DJ Cut Fasta B.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



**Smurfit Kappa**




# LABIRINTOIA








# ORIGAMI

Jarraitu pausoei arraina egiteko.



# ITZALAK

Zein itzal dagokio  
alboko irudiari?





IRATXE ETXEANDIA

## Huntza

MUSIKA ABADIÑO :: Maiatzak 20

### Huntza taldearen doinuek jai giroa berotuko dute santrokazetan

Bost disko eta ehunka kontzertu egin ondoren, Huntza taldeak agurra iragarri zuen urte hasieran. 2024ko otsailaren 3an emango dute azken kontzertua, Miribillan. Aurretik, baina, hainbat kontzertu emango dute. Horietariko bat Abadiñon joko du talde gipuzkoarrak, hilaren 20an, 21:30ean, Txanporta plazan. Ondoren, DJ Bullek alaituko du jai giroa. Talde gipuzkoarra 2014an sortu zen, Bilboko

kaleetan. Unibertsitate garaian elkaturiko sei gaztek osatzen dute Huntza, eta sorturiko musika Euskal Herri osora zabaltzea izan dute helburu. *Harro gaude* abestia plazaratuta egin zuen taldeak bere lehenengo agerpena, 2016ko martxoaren 8an. Abestian, oholtza gainera salto egin zuten lehenengo emakumeak omentzen dira. Orain urte bi kaleratu zuten azken diskoa: *Ezin ezer espero*.

## Maiatzaren 19an

### ABADIÑO santrokazak

**Disko-festa: Sound-4**, 18:00etan, Txanportan.

**San Trokaz txapelketako finalak (22 urtez azpikoak)**, 19:00etan, trinketean.

**Ruper Ordorika**, 22:00etan, probalekuan.

### BERRIZ Asentzioak

**Donien atxa jasotzea**, 18:00etan, Andikoan.

**Haize Arrosa**, 20:00etan, santutegian.

### DURANGO kontzertua

**Bulego**, 21:30ean, Plateruenean.

### ELORRIO bakarrizketa

**'Monólogos a dos bandas' (A. Agirregomezkorta & N. Garmendia)**, 20:00etan, Arriolan.

### IURRETA bakarrizketa

**'Arranopola' (Ttipia)**, 19:00etan, Ibarretxen.

### IURRETA bakarrizketak

**Torrai eta Nona**, 20:00etan, Abadetxean.

### MAÑARIA ikuskizuna

**Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia**, 21:30ean, kultur etxean.

## Maiatzaren 20an

### ABADIÑO santrokazak

**Euskal ezkontza**, 12:00etan, San Trokaz plazan. Trikitilariak:

Gorka eta Mikel. Erraldoiak.

**Bazkari herrikoia**, 14:30ean, ferialekuan.

**Julivert**, 18:30ean, Txanportan.

**Huntza + DJ Bull**, 21:30ean.

### BERRIZ Asentzioak

**Kronoigoera Azolatik**

**Andikoako santutegira**,

17:00etan (izena ematea Azolako errekan, 16:00etan).

**DJ Txululuk** girotuta.

**'Herri txikin, auzo handi':**

**O. Enbeita eta U. Iturriaga**

**(Gidariak: I. Barcelo eta M.**

**Amuriza)**, 20:00etan.

### DURANGO jaialdia

**Río de Oren 10. urteurrena.**

**Puzgarriak eta umeentzako**

**sushi tailerra**, 11:00etan,

Landako Gunean (kalean).

**Paella lehiaketa**, 11:00etan.

**Saharako kulturaren**

**erakustaldia**, 12:00etan.

**Taberna ibiltaria eta**

**kontzertua**, 17:00etan.

**Bertsio lehiaketa: Berri**

**Txarrak, Gatillazo, Muse, Red**

**Hot Chili Peppers, Danko**

**Jones, Los Piojos, Gatibu,**

**Ibil Bedi, The Beatles eta**

**Joan Jett & the Blackheart,**

20:00etan, Plateruenean.

### DURANGO kontzertua

**Errakaldeko Errota** (Leioa),

**Aita Gotzon** (Barrika) eta **Izar**

**Gaztea** (Durango) **abesbatzak**,

18:00etan, San Frantzisko elizan.

### MALLABIA ekitaldiak

**Irteera ornitilogikoa**,

09:00etan, petriletik (J. Andres

eta F. Garitagoitia).

**Monstruos de la Universal**,

18:00etan.

### Gazta eta garagardo

**dastatzea**, 18:00etatik

21:00etara, probalekuan.

### MAÑARIA bisita gidatua

**Tanadori Yamaguchi**,

12:00etan eta 13:00etan,

Angurreta Harrobian.

**Mursego**, 19:00etan.

### ZORNOTZA antzerkia

**'Kelsonia eta Itsasoa'**

**(Gorakada)**, 17:30ean, Zornotza

Aretoan.

## Maiatzaren 21ean

### ABADIÑO santrokazak

**Umeentzat herri kirolak eta**

**jokoak**, 11:30ean, ferialekuan.

**Talde Batuak eta Txanbolin**,

18:00etan, Txanportan.

**Txokolatada**, 19:00etan.

**Gerbasi agurra eta jaien**

**amaiera**, 20:00etan.

### ATXONDO azoka

**Artisau eta sortzaileen**

**azoka**, 11:00etan, Arrazolako

Amillen. **Cut Fasta B DJa**.

### BERRIZ Asentzioak

**Meza nagusia**, 12:00etan.

**Iremiñeko dantzariak**,

13:00etan.

**Umeentzat jolasak eta**

**txokolatea**, 17:00etan.

**Erromeria: Mirari eta**

**Aintzane**, 18:00etan.

**Bolo-joko txapelketa**,

19:30ean.

### MAÑARIA azoka

**XXVII. Artisau, Elikadura**

**eta Landare Azoka + VI.**

**Euskadiko Azpi Gorri**

**Txapelketa**, 11:00etan, plazan.

### ZORNOTZA ekitaldia

**'In-Memoriam' gerra zibileko**

**biktimen oroimenezko**

**ekitaldia**, 12:00etan, Zelaieta

parkean.

## Maiatzaren 21era bitartean

### DURANGO erakusketa

**'Berpizkundera'. J. M. Rozasen**

**heriotzaren 40. urteurrenean.**

Arte eta Historia Museon.

## Maiatzaren 24an

### MALLABIA tailerra

**Arteterapia**, 18:30etik

20:30era, Kontzejazarrean.

## Maiatzaren 25ean

### ABADIÑO kontzertua

**Addar**, 19:30ean, Amaraun Arte

Fabrian.

### DURANGO kontzertua

**Añube**, 21:00etan, Intxaurren.

### DURANGO bertsoak

**'Anonyme Popular' (I. Elortza**

**& R. Rueda)**, 19:00etan, San

Agustin kulturgunean.

## Zinema

### :: Berriz

**KULTUR ETXEA**

• **Mavka: Basozaina**

barikua 19: 17:00

domeka 21: 17:00

### :: Durango

**ZUGAZA ZINEMA**

• **Fast & Furious X**

barikua 19: 18:00 / 21:00

zapatua 20: 16:30/18:30/21:30

domeka 21: 17:00/20:00

astelehena 22: 19:00

martitza 23: 17:30 / 20:15

eguztana 24: 19:00

• **Una buena persona**

barikua 19: 18:30 / 21:00

zapatua 20: 18:30 / 21:30

domeka 21: 19:00

astelehena 22: 19:00

martitza 23: 17:30 / 20:15

eguztana 24: 19:00

• **Las ocho montañas**

barikua 19: 18:30

zapatua 20: 19:15

domeka 21: 19:00

astelehena 22: 19:00

martitza 23: 17:30/20:15

eguztana 24: 19:00

• **Patti y la furia de**

**Poseidón**

zapatua 20: 16:30

domeka 21: 17:00

### :: Elorrio

**ARRIOLA ANTZOKIA**

• **Joyland**

zapatua 20: 20:00

domeka 21: 20:00

astelehena 22: 20:00

### :: Zornotza

**ZORNOTZA ARETOA**

• **Los buenos modales**

barikua 19: 20:00

domeka 21: 20:00

astelehena 22: 20:15

• **Lokatx deabruak**

domeka 21: 17:00

• **Los reyes del mundo**

martitza 23: 20:15



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



**Athletic Club**




**Vs**



**Elche CF**

## Athleticen eta Elxen arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: Maiatzak 23, goizeko 10:00ak arte.

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan! >



**anboto  
kide**

# “Gure herritik irten eta publikoa gure kantak abesten entzun dugun lehenengo herria da Durango”

Bulego taldeak kontzertua emango du gaur Plateruenean, 21:30ean; udako birarako prestaketa lanak egiten egon dira azken egunetan bertan



Bulego.

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

**Udan egitekoa den birako emaldiak prestatzen egon da azken egunetan Bulego talde ezaguna Durangoko Plateruena kultur aterpean. Tomas Lizarazu eta Ruben Lizarralde taldekideekin berba egin du ANBOTOK.**

**Plateruena berriro zabalik dagoenetik, bertan aterpe hartu duen lehenengo taldea zarete. Zelako esperientzia izaten ari da?**

**Tomas Lizarazu:** Plateruenean *Stage* deitzen zaiona egiten ari gara. Funtsean, publikorik gabeko kontzertuak egiten ari gara, martxa hartzeko. Hiru hilabete daramatzagu kontzerturik eskaini gabe, eta udan egitekoak garen birarako prestatzen ari gara. Zuzeneko ikuskizun berri batekin itzuli nahi dugu; gure zuzenekoetan lantalde handia dago atzetik, ez gaude musikariak bakarrik, eta, hortaz, lokaleko entseguak baino gehiago behar izaten dugu; uste genuen egoikia izango zela horrelako egonaldi

bat egitea teknika guztia martxan jartzeko, lantalde osoaren eszenatikiko sartu-irtenak, argiak eta abar prestatzeko. Udan plaza handiak ditugu aurreikusita, eta horra ondo prestaturik iristeko, tenperatura hartzeko eta lehenengo kontaktu bat edukitzeko ere emango dugu kontzertua, gaur.

**Dinamoko egonaldia eta Plateruenekoa horretarako dira, konfort eremutik irten eta beste txip batekin entseatzeko**

**Talde lez, zelakoa da horrelako baliabide eta azpiegiturak eskura izatea?**

**T. L.:** Plateruenean lau egunez egon gara lanean, eta aurretik Azpeitiko Soreasun egon gara, Dinamoan. Han, batez ere, musika lantzen aritu gara, bost egunez. Abestien nondik norakoak eta soina defi-

nitzen eta balizko arazo teknikoak konpontzen egon gara. Igor Iglesias gure teknikaria durangarra denez, ondo ezagutzen ditu Plateruena eta bertako ekipoa, eta hortik irten zen ideia.

Lokaleko entseguak garrantzitsuak eta beharrezkoak dira; gero, biran, errutina moduko batean sartzen zara eta gustatzen zaigu geure buruari erronkak jartzea. Dinamoko egonaldia eta Plateruenekoa horretarako dira, konfort eremutik irten eta beste txip batekin entseatzeko; kontzertuen parekoak dira entseguak, publikorik egon ez arren, martxa hartu eta gero taula gainera indartsu irteteko. Horrelako azpiegiturarik gabe, lokalean egingo genuke, eta kontzertuak egingo genituzke, baina ez ginatke segurtasun berdinarekin irtengo.

**Zelakoak izango dira udako birako kontzertuak? Eta gaurkoa?**

**Ruben Lizarralde:** Nik uste dut jendeak sorpresa eramango duela. Urtebetean 56 kontzertu eman di-

tugu, asteburuko bat. Jende askok ikusi gaitu, eta horregatik nahi dugu ikuskizun berri bat eman. Arlo musikala asko landu dugu eta ikuskizun aldetik ere berritasunak egongo dira. Jendeak ez du esperoko orain emango dugun aldaketa hau.

**Ahotsenean jo dugu, Durangoko Azokan, eta publikoan ere askotan egon gara bertan. Erreferentziatzeko aretoa da Plateruena**

**Behin baino gehiagotan jo duzue Plateruenean.**

**R. L.:** Ahotsenean jo dugu, Durangoko Azokan, eta publikoan ere askotan egon gara bertan. Erreferentziatzeko aretoa da Plateruena. Pandemia testuinguruan jo genuen bertan lehenengoz,

herrialdetik ezin zenean irten. Kontzertu bikaina izan zen, eta jendearen erantzuna ere itzela; horrek harritu egin gintuen, ez genuelako uste Durangon hainbeste jarraitzaile izango genuenik.

**T. L.:** Gure herritik irten eta publikoa gure kantak abesten entzun dugun lehen tokia da guretzat Durango. Gainera, anekdota txiki bat ere badugu horrekin, izan ere, beti gurekin datorren Joseba managerra ez zen egon kontzertu horretan; publikoa gurekin kantatzen egon zen lehen aldi hori galtzearen arantza dauka. Guretzat oso polita da Plateruenean egotea; alde batetik, hiru hilabete daramagulako kontzerturik eman gabe, eta Durangon besoak zabalik hartu gaituztelako beti; bestetik, hainbeste hilez itxita egon ostean atea ireki dituelako berriro Plateruena. Horrelako areto bat hainbeste denboran itxita egotea tristea da; azken finean, horrelako aretoak euskal kulturaren hauspoa direlako. Egin beharreko gauza batzuk geratzen dira oraindik, tabernako barra zabalik egotea adibidez, baina atea irekita egotea pozgarria da.

**Azken biran, plaza handietan, aretoetan eta gaztetxeetan aritu zarete. Non gusturen?**

**T. L.:** Hiru edo lau urte baino ez daramatzagu elkarrekin, baina urteotan errealitate desberdin asko ezagutzeko aukera eduki dugu: kontzertuak musukoarekin eta eserita, Bilboko Aste Nagusian Abandoibarra plaza beteta, Santurtziko jaietan, Bergarako eta Orioko gaztetxeetan, kanpoan ibili gara jotzen... Behin, adibidez, Bilboko Kafe Antzokian jo genuen eta aretoa bete-beterik zegoen. Hurrengo egunean Maulleko Zinka ostatuan jo genuen. Ostatu txiki-txikia da, eta, adibidez, guk muntatu genituen altabozak eta abar. Horrelako kontrasteak bizitzeko aukera da Bulegoren gauza ederrenetariko bat. Kanpotik ikusita, eman dezake Abandoibarraren moduko plaza handi batean jotzea ederra dela, eta bai, bada, jende asko biltzen delako, eta komunio bezalako bat sortzen da jendearekin, baina gaztetxe batean jotzea baino hotzagoa da, diplomatikagoa edo; gaztetxean zurekin dagoen jendeak prestatu du afaria, eta bertan astero batzen den jendea ezagutu dezakezu. Kontraste asko ditu Bulegok, eta asko disfrutatzen dugu.



Maider Lopez eta Nerea Ariznabarreta.

## Keloniak itsasora heltzeko biziko duen abentura, Zornotza Aretoan

Zapatuan izango da 'Kelsonia eta Itsasoa' antzezlanaren emanaldia, 17:30ean

**ANTZERKIA • A. M.**

*Kelsonia eta itsasoa* obrako protagonista dortoka txiki bat da, hondartzan jaio ostean hiriko oihanean murgilduko dena itsasora joan aurretik. "Istorio samurra eta dibertigarria da, zuzeneko musikagaz eta objektuen bidezko antzerkiaren bitartez kontatua", azaldu dute Gorakada konpainiako kideek. Nerea Ariznabarreta aktore eibartarra da obrako protagonista, eta Maider Lopez durangarra arduratu da zuzeneko musikaz; Idoia Barcelo berriarrak itzuli du. Familia osoarentzako ikuskizuna da *Kelsonia eta*

*Itsasoa*, eta, hain zuzen ere, konpainia pozik dago antzerkizaleen adin tartea zabaltzeko hartzen ari den beharragaz. "Lanek geruza desberdinak dituzte, publiko desberdinak gozatu ahal izateko". Ideiaren jatorria Herrialde Katalanetan dagoela azpimarratu du Alex Díaz zuzendariak.

Urtarrilean Elorrioren estreinatua ostean, hainbat emanaldi egin dute, eta, oraingo honetan, Zornotza Aretoan emango dute; aurretik, Durangon eta Berrizen eman dute obra. Estreinaldia ez ezik, Gorakada konpainiako

kideek Elorrioko Arriolan egin zituzten estreinaldiaren aurreko entsegu lanak ere.

**1987tik martxan**

Gorakada konpainia historikoa da Euskal Herrian; 1987an sortu zenetik, erreferentziakoa bihurtu da eta publiko gazteagazko konpromisoa azpimarratu dute hasieratik. Azken sasoiaren, *Ulisesen bidaia*, *Pinocchio* eta *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* lanak aurkeztu dituzte; azken honengaitik dramaturgiarik onenaren Feten saria jaso zuten iaz.

## Igor Elortzak 'Anonyme Popular' aurkeztuko du Durangon

Emanaldia maiatzaren 25ean izango da, 19:00etan, eguenean, Durangoko San Agustin kulturgunean

**MUSIKA • A. M.**

Igor Elortza bertsolari durangarrak herrikideen artean aurkeztuko du *Anonyme Popular* proiektua; Elortzak iazko udazkenean kaleratu zuen izen bereko disko-liburua. Bederatzi abestik osatzen dute lana, eta bere alderik intimoena islatzen ahalegindu da egile durangarra, "bertso berriak, garaiari eta giroari jarriak, norbanakoaren egunerokotik jendeari kantatzeko", bere esanetan. Rafa Rueda musikari bizkaitarra arduratu da hitzei musika ipintzeaz; zuzenekoetan hirugarren

musikari bat izango dute, Álvaro Olaetxea perkusionista. Ekoizpen lanak Jose Lastra teknikariak egin ditu. Oier Zuñiga antzerki zuzendariaren laguntza ere izan dute zuzenekoak prestatzeko.

Hile hauetan, disko-liburua zuzenean aurkeztu egon dira Elortza eta Rueda. Lehenengo emanaldia Azpeitiko (Gipuzkoa) Soreasun egin zuten, izan ere, sormen egonaldia herri bereko Dinamoia gunean egin zuten. Durangokoa iragarrita dute azken emanaldia izango da oraingoz.




Rafa Rueda eta Igor Elortza.

## Gai librean

### Urak handi

Cris Lizarraga musikari, idazle eta aktibista dio bere gorputza bigun-biguna izatea nahi duela, behar duen aldiro, de-segin eta flubber bat bailitzan, berriz konposatzeko. Bere gorputz biguntxoari esker (hala izendatzen du berak) egin duela gaur negar, hartu duela loak, jan dituela gustuko zenbait jaki. Kantatu, barre egin zein hitz eta pitz aritu dela, bere gorputz biguntxoak hala laga diolako.

Nire gorputza ere Crisenaren tankerakoa da. Bigun-biguna. Kanpotik nola, barrutik ere biguntzen zait aldiro atalen bat edo beste. Izan ere, flubber baten forma hartzen dit sarritan bihotzak; uzurtu baino, bigundu egiten zaidalako. Aspaldian askotan likidotu zait barrena: Ibil Bediren disko berriarekin eta 20.000 *especies de abejas*



Miren Erdoiza Mujika  
Irakaslea

**Kantatu, barre egin zein hitz eta pitz aritu dela, bere gorputz biguntxoak hala laga diolako**

**Biguntasunak bizirik nagoela gogorarazten dit, beraz. Bizirik nago, eta biguna naiz**

filmarekin, esaterako. Hesteak ere de-segin egin zaizkit noiz edo noiz, izenik gabeko minaren minez. Astelehenetan gelatinazko pausoak ematen ditut, lanera joan behar dudalako. Alutik nahiz begietatik isurtzen ditut ere fluberra diruditen urak. Uda aurreko sasoi honetan urak handi badatozkit ere, itsaso bareaz nola, nire gorputz bigunaz hala gozatuko dut.

Biguntasunak bizirik nagoela gogorarazten dit, beraz. Bizirik nago eta biguna naiz.

Biguna naiz burua nire bularrean goxo berma dezazun, biguna naiz elkarrekin negar/lan/barre/jan/dantzatu/edan/amets egin dezagun, biguna naiz hausten naizenetan nire zatiak errazago bil ditazun, biguna naiz ipurdia gogoz hel diezadazun. Bigun-biguna naiz Cris bezala, eta biguna naizelako behar ditut halako gorputz gehiago.

# Tabirra garagardo azoka domekara arte egongo da zabalik, Landako Gunean, eta musika kontzertuak ere

Bariku arratsaldean eta zapatuan egun osoan zehar, hamalau musika taldek zuzenekoak emango dituzte

**JAIALDIA • JOSEBA DERTEANO**

Atzotik martxan da Tabirra garagardo azokaren bigarren aldia, Landako Gunean. Musika kontzertuak ere antolatu dituztela da aurtengo nobedade nagusia. Gaur arratsaldean sei talderen zuzenekoak ikusteko aukera egongo da, eta zapatuan beste zortzirena, egun osoan zehar.

Azpiegitura osoa Landako Guneako lehenengo moduluan kokatuta dago, hau da, aurreko aldean. Hamar bat metroko luzera duen barra bat ipini dute

**Dirua tiketengaitik aldatuko dute sarrean, eta horiekin ordainduko dira garagardoak**



Durango Rugby Taldeko eta Durangoko Udaleko ordezkariak, martitzenean, ekimena aurkezteko egindako agerraldian.

garagardoa ere badago aukeran.

Sarrera doakoa da. Dirua tiketengaitik aldatuko dute sarrean, eta horiekin ordainduko dira garagardoak. Barretako txanda guztiak boluntarioekin beteko dituzte.

**Janaria ere bai**

Edateko ez ezik, jateko aukera ere badago Tabirran. Aurtengo edizioan, Tipi-Tapa enpresaren *Food Truck* bat ipini dute, baita Cachito Mío enpanaden eta Arripu Tabernako tortillen postuak ere. Horrez

gainera, aurtengo azokak umeen jolaserako gunea eta errugbiaren inguruko solasaldiak ere izango ditu.

Ekimenak Durangoko Udalaren eta La Salve garagardo enpresaren laguntza du, beste laguntzaile batzuen artean.

## EGITARAUA

### MAIATZAK 19

17:00etatik 01:00etara egongo da zabalik.

Musika kontzertuak

- 18:00 Peio
- 19:00 Banda Baffana
- 20:00 Katu
- 21:00 Ezta Ilen
- 22:00 Ezezez
- 23:00 Muni&zipala

### MAIATZAK 20

11:30etik 02:00etara egongo da zabalik.

Musika kontzertuak

- 12:00 KSKA
- 15:00 Hellwatch
- 16:00 Hilerrri
- 18:00 Llama a la pasma
- 19:00 Ainke
- 21:00 Iramo
- 22:00 Sentenciados
- 23:00 Zuretzako mezua

### MAIATZAK 21

12:00etatik 15:00etara egongo da zabalik.

## Durango Rugby Taldeak eta Betsaide Elorriok Euskal Ligako finalak jokatu dituzte, Irunen

DRTko emakumeek Gaztediren aurka neurtuko dituzte indarrak eta Elorrioko gizonak Eibar izango dute aurkari



DRTko eta Betsaide Elorrioko jokalariek finalerako sailkapena ospatzen. **PEDRO MORENO**

**ERRUGBIA • J.D.**

Irungo Plaiaundi errugbi zelaiak Euskal Ligako bost final hartuko ditu zapatuan, eta seniorretako bietan Durangaldeko taldeak izango dira protagonista: Durango Rugby Taldea eta Betsaide Elorrio.

DRTko emakumeek Gaztediren kontra jokatu dute, 14:30ean. Finalerdietan Universidad Bilbao taldea kanporatuta egin dute finalerako bidea durangarrek. Partidu bietan nagusitu ziren, joanekoan 28-26 eta itzulikoan 0-7. Iaz bigarren mailatik lehenengora igo ziren, eta, beraz, aurtengoa bigarren finala izango dute jarraian.

Betsaide Elorrio aurtengo partidu guztiak irabazita heldu da finalera. Txapeldun izateko Eibar taldeari irabazi beharko diote bihar. Partidua 16:30ean hasiko da. Elorriarren aurtengo errendimendua ez da salbuespena. Iaz ere Euskal Ligako finalera heldu ziren, baina orduko hartan galdu egin zuten. Betsaide Elorriok Durango Rugby Taldea menderatu zuen finalerdietan eskualdeko derbian. Partidu bietan nagusitu ziren elorriarrak.

## Moolman-Pasiok irabazi du Durango-Durango klasikoa

Moolman-Pasiok irabazi du lasterketa, Ane Santestebanen eta Claire Steelsen aurretik

**TXIRRINDULARITZA • M.ZUAZUBISKAR**

Durango-Durango Emakumeen Laboral Kutxa Saria klasikoak munduko txirrindularirik onenak batu ditu beste urte batez. Hainbat ihesaldi saiakera izan zen arren, sprintean erabaki zen irabazlea.

Momoitiko igoeran, indartsuenek aurrera egin zuten. Momoitioko lehenengo aldatsean, Ashleigh Moolman-Pasiok

atzean utzi zituen gainerako txirrindulariak, baina gora igo orduko Ane Santesteban errenteriarrek haregaz bat egitea lortu zuen. Santestebanek aurrera egin gura izan zuen, baina ez zuen lortu Moolman-Pasio atzean uztea. Azkenean, sprintean erabaki zen lasterketa. Moolman-Pasio izan zen bizkorrena, Ane Santestebanen eta Claire Steelsen aurretik.



Ashleigh Moolman-Pasio.

# Amorebietak etxean ospatu lezake Bigarren Mailarako igoera, zapatuan

Amorebietak bere esku du igoera eta ez du inoren emaitzen zain egon beharrik



Amorebietako jokalariek joan zen asteburuan Logroñesen kontra sarturiko gola ospatzen. **MARIELI OVIEDO**

## FUTBOLA • J.D.

Joan zen asteburuan ez bezala, oraingoan Amorebieta futbol taldeak bere esku du Bigarren Mailara igotzea. Ez dago besteen emaitzen menpe. Irabazten badu, seguru igoko da. Berdinketak eta porrotak ere balio diezaioke, baina kasu bi horietan Eldenseren emaitzaren arabera izango da. Liga amaitzeko jardunaldi bi falta direnean, lau puntuko aldea dago talde bien artean.

Partidu erabakior hori zapatuan jokatu dute, Urritxan, 19:30ean, Gimnastic de Tarragona taldearen

aurka. Zornotzako futbol zelaia lepo beteko da. Klubak martitzen eguerdian iragarri zuen sarrera guztiak agortuta daudela.

Tarragonako taldea jokoan ezer gutxi duela etorriko da Zornotzara. Joan zen asteburuan, 1-0 menderatu zuten Cornellá eta orain sei puntura du jaitsiera. Ez da behar larrian dagoen taldea.

Amorebieta sasoi betearekin heldu da azken txanpara. Liga hasiera eskasa egin ostean, azken 26 partiduetan hamasei garaipen eta zortzi berdinketa pilatu ditu. Azkenengo berdinketa joan zen

asteburukoa da, SD Logroñesen zelaian lorturikoa. Haritz Mugikak entrenaturiko gizonen markagailuan aurreratzea lortu zuten, Ewan Urain durangarraren gol bati eskerrak, eta hogeita minutu baino gehiagoan Bigarren Mailako taldea izan ziren, baina Logroñesek berdinketaren gola sartu zuen luzapenean.

Bihar igoera lortu ezik azkenengo bala bat geratuko zaio Amorebietari. Maiatzaren 27an, dagoeneko maila galduta dagoen Athletic B-ren kontra jokatu du.

# Durangoko Euskal Jaiak zesta-punta txapelketa zapatuan hasiko da, sei bikotegaz

Datozen hiru zapatuetan ligaxkako partidua jokatuko dira Ezkurdi Jai Alai; finala ekainaren 10ean izango da



Durangoko frontoia.

## ZESTA • J.D.

Zapatu honetan, Euskal Jaiak zesta-punta txapelketaren 19. aldia hasiko da Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Txapelketa ligaxka formatuan jokatuko da. Partidua maiatzaren 20an, 27an eta ekainaren 3an izango dira, 18:00etan hasita.

Amateur mailako binakako txapelketan Euskal Herriko hainbat elkartetatik etortitako sei bikotek parte hartuko dute. Multzo batean Berriatuako Antxon-Lekue, Zumaiako Eduardo-Uranga eta Biarritzeko Bixente-Iturralde bikoteek jokatu dute. Beste multzoko bikoteak honako hauek

dira: Hondarribiko Basterra-Sallaberry, Donibane Garazi eta Mauleko Urrutia-Oihenard eta Mutriko Urreisti-Manzisor. Sailkatzen diren bikote biek ekainaren 10ean jokatu dute finala.

## Musika eta zozketak

Jaialdi profesionalean egiten den moduan, kantxa barruko ikusluzuna beste ekintza batzuekin ere osatu dute. Sari berezia duen zozketa egingo dute bertaraten diren artean, eta jaialdiak musika girotuko dituzte.

Txapelketa Ezkurdi Jai Alai elkarteak eta Durango Jai Alai zesta-punta eskolak antolatu dute.

## Jokaldia

### Beste behin ere Zegama

Urtero lez maiatza heltzen den bakoitzean mendi korrikalari guztiok, dortsala izan zein ez, Zegamara begira jartzen gara. Batzuentzat lehenengo Zegama-Aizkorri delako, beste batzuentzat aurreko urteetako denbora jaisteko aukera delako, beste batzuentzat hainbat urtetan parte hartu eta gero azken Zegama izan daitekeelako, eta beste batzuentzat agian estreinakoz igoko direlako Sancti Espiritura lagun edo ezagunen bat animatzera eta telebistan hainbestetan ikusi duten giroa bizitzeko aukera izango dutelako. Bakoitzak bere arrazoiak izango ditu, baina denok munduko ilusiorik handienarekin itxaroten dugu maiatzeko egun hau, nerbioak dantzan.



Oihana Azkorbebeitia Urizar  
**Mendi lasterketak**

**Urduri gaude irteeran, pozik. Euria eta hotza dira nagusi, baina Zegama jendez lepo dago. Harrigarria!**

Eta heldu da azkenean, maiatzak 14 aurten, eta hemen gaude berriro Zegamako plazan, nire 13. Zegama-Aizkorri korritzeko prest. Euria ari du, bota eta bota, eta abisu horia piztu ei dute gaurko. Gu 42 kilometro mendian zehar egiteko prestu gaude, eta Aizkorri aldera begira gaude, baina Aizkorri ez da ikusi ere egiten. Aizkorriko gailurreko tarterik harritsuena eta teknikoena kentzea erabaki dute antolatzaileek. Ondo harturiko erabakia, korrikalarion, ikusleen eta

antolakuntzako segurtasuna kontuan hartuta. Urduri gaude irteeran, pozik. Euria eta hotza dira nagusi, baina Zegama jendez lepo dago. Harrigarria!

9:00etako kanpaiak! Bagoaz! Aspaldiko Zegamarik gogorrena eta ederrena niretzat. Aurten sufritu egin dut hotzarekin, baina ikusleen animoek ikaragarri berotu naute. Benetan da eskertzekoa ibilbidean egon den jendetza! Egin duen hotzarekin! Bota dituen txingorraldiekin! Korrikalariorik meritua dugula esaten digute, baina han egon egin behar da ikusten eta animatzen! Zuek bai meritua zuek!

Zorionez ez dugu erorikorik eta ezer txarrik izan eta heldu gara, osorik, helmugara. Pozarren nago eginiko lasterketarekin eta bizi izan dudarekin. Datorren urtean berriro bueltatuko gara Zegamara!



**DURANGO**

Txaleta. Familiabakarra. 330 m<sup>2</sup>. 4 logela eta 4 komun. Lorategia, terraza eta solariuma.

**615.000€**

**MATIENA**

3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela balkoiarekin. Igogailua.

**159.000€ C.E.E: E**

**KALEBARRIA**

3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Igogailua.

**140.000 € C.E.E= F**

**DURANGO**

Apartamentua. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan.

**142.500 € C.E.E=F**

**MATIENA**

4 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. 14 m<sup>2</sup>-ko ganbara.

**210.000 € C.E.E: E**

**DURANGO**

Atikoa. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Guztiz barriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.

**165.000 € C.E.E= E**

**// ETXEBIZITZAK SALGAI**

**DURANGO:** Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

**DURANGO:** Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukalde, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

**DURANGO:** Antso Estegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

**ABADIÑO**

**ABADIÑO:** Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukalde eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

**BERRIZ**

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukalde eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

**//LURSAILAK SALGAI**

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

**//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**

**IURRETA:** Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berriztatuko.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

**//BULEGOAK ALOKAIUAN**

**ABADIÑO**

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

**//GARAJE ITXIAK SALGAI**

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

**//LOKALAK ALOKAIUAN**

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

**www.inmoduranguesado.com**

**DURANGO**

35 m<sup>2</sup>

1 logela

**ALDE ZAHARRA:** Egongela, Sukalde jantzia, komuna eta logela. Etxe erdiak kanpora ematen du. Erdialdean. Zerbitzuguneetatik gertu.

**79.000 € C.E.E: Bidean**

**DURANGO**

104,54 m<sup>2</sup>

4 logela

**LARIZ DORREA:** Egongela, sukalde, jangela, 4 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea). Leku onean kokatua (Santa Ana). Hobekuntzak behar ditu. 2 APARTAMENTU BIHURTZEKO AUKERA.

**175.500 € C.E.E: E**

**DURANGO**

69 m<sup>2</sup>

2 logela

**LANDAKO:** 1.999. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta ganbara.

**278.000 € C.E.E: E**

**DURANGO**

98,9 m<sup>2</sup>

3 logela

**ASKATASUN ETORBIDEA - ALLUITZ:** 1.993. urtean eraikia. Egongela handia. sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta 2 despensa. Balkoi itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebalde-iparraldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Ganbara eta garajea.

**334.000 € C.E.E: Bidean**

**IURRETA**

69 m<sup>2</sup>

2 logela

**ZUBIAURRE:** Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta galeria. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea / ipar-ekialdea) Argitsua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Berriztatua. Egoera ezin hobea. ITE-a orainsu pasatutakoa.

**186.700 € C.E.E: G**

**ABADIÑO**

33,65 m<sup>2</sup>

1 logela

**SAN TROKAZ:** + 122 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea). Argitsua. Zonalde berdeak eta apartatzeko erraztasuna. Egoera onean.

**169.000 € C.E.E: Bidean**

**//DURANGO**

**ANTSO EZTEGIZ KALEA:** 2 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € / ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / ORAIN 298.000 € E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukalde eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukalde balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

**//ABADIÑO**

**MUNTSARATZ AUZOA:** Baserria. 2.750 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 350.000 E.E.Z=D**

**//BERRIZ**

**BERRIZBEITIA:** 2 logela, sukalde, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000€/ ORAIN 85.000€ E.E.Z=G**

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

**PADURE:** 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

**//GARAI**

**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

**//IURRETA**

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

**//IZURTZA**

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

**//OTXANDIO**

**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**

**//ZALDIBAR**

**BOLATOKI KALEA:** 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

**//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO**

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

**//LOKALAK SALGAI /ALOKATZEKO**

Informazio gehiago bulegoan.

## Botikak

**BARIKUA, 19** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 20** · 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 21** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 22** · 09:00-09:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 23** · 09:00-09:00

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 24** 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 25** · 09:00-09:00

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AKARTEKO EPEA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Gaur **Jennifer** eta **Beñat** ezkonduko dira. Zorionak, bikote! Egun zorionsua eduki dezazuela.



Zorionak, **Ekhitzu**, zure 8. urtegunean! Mosu handi-handi bat etxeko danon partez! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



Zorijonak, **Joanes**! Maiatzaren 24an 10 urte eingo dozuz. Enterau barik eta gizontxo bat honezkero. Ondo pasau merendolan lagunekin. 10 belarri tirakada eta 10 mosu haundi lzei, ama eta maite zaitugun danon partez.



Zorionak, **Iurdan**! Durangotik Martutenera kiloka musu eta besarkada zuretzat. Askok maite zaitugu!

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 10° / 17° ☁

ASTELEHENA ↓ 12° / 18° ☁

EGUAZTENA ↓ 12° / 20° ☁

DOMEKA ↓ 10° / 16° ☁

MARTITZENA ↓ 13° / 18° ☁

EGUENA ↓ 12° / 22° ☁

**La narradora loca**

**LIBURU AURKEZPENA EGILEAREKIN**

Aurkezlea: NEREA GOIOAGA  
HIZKUNTZA: GAZTELANIA

MAIATZAK 19 19:00

ERRESERBAK  
946812726  
688863736  
biblioteka@iurreta.eus

Iurreta

**GAER DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

## "Irlandatik bueltan konturatu nintzen Zaldibar ez zela bizitzeko toki bat niretzat"

Ingeles filologia ikasi ondoren, Roberto Abad Ipar Karolinara (AEB) joan zen, irakasle lez lan egitera orain dela hogeitun urte baino gehiago. Gaur egun Tbilisiko (Georgia) eskola batean dabil



**Roberto Abad Maiztegi**

Irakaslea

ZALDIBAR | 1970

### ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI

Roberto Abadek hainbat herrialde ezagutu du orain hamarkada bi Zaldibartik joan zenetik. Kazakstanen, Txinan eta Bosnian ere bizi izan da.

### Zelan gogoratzen duzu Zaldibartik Ipar Karolinarako aldaketa?

Aldaketa guztiak onak dira. Gure burua hobetzen laguntzen digute eta, batzuetan, gure istorioa berri-dazten. Herrialde berri batera noan bakoitzean, istorio berri bat hasia izan da. Nazioarteko irakasle izaten lagundu zidan plataforma izan nituen AEBak. Esperientzia bikaina izan zen, hazkunde profesionala

garaia. Han bizitako urteetan, adopziozko familia handituz joan nintzen. Aurretik, Londresen eta Irlandan lan egin nuen, ostalaritzan. Herrialde eta kultura asko ezagutu duzu. Zeinek erakarri zaitu gehien?

Hasieran denak dira erakarriak. Edonon topatzen dituzu mundua beste era batera ulertzen laguntzen dizuten pertsonak. Hala ere, ez gara horren desberdinak, horixe da harrigarriena. Hizkuntza eta ideologia desberdinak izan daitezke, baina oinarrian denok gara gizakiak. Shock kulturalik handiena AEBetan bizi izan nuen. Dena da handia: etxeak, kotxeak, jendea...

eta ni ez naiz txikia! Oraingoz kultura georgiarraz sentitu naiz ondoen. Baina toki guztietan topatu ditut bihotzean daramatzadan lagun onak.

### Nomadatzat duzu zeure burua?

Jakina! Aitak kontaturiko istorioak eta Argentinako aitarien pasadizoak atsegin handiz gogoratzen ditut. Nire irudimena gehituta, etxetik irteteko ezinbesteko arrazoia izan zela uste dut.

### Zelan eragin du milaka errusiarren irteerak Tbilisn?

Talka politiko eta kultural izugarria sortu du. Bestalde, bizimodua asko garestitu da. Gerratik ihesi,

herrialdeetik irteten duten lehenengoak ez dira zertan egoera ekonomikorik okerrena dutenak izan. Oso gogoan dute Georgiaren iragan sobietarra, eta zauri pertsonal asko dago ustelkeriaren ondorioz. Politikoki ez da herrialde egonkorra.

**Arropa eta bitxiak diseinatzen dituzu.** Etxean beldurrik barik adierazten erakutsi zidaten, eta, askotan, hori ez da erraza zer garen definitzen duen gizartean. Inoiz ez diot beldurrik izan neure burua adierazteko sormena erabilia: pinturagaz Txinan, kantuagaz Bosnian, eta arropa-bitxi-altzarien diseinuagaz Georgian. Artea komunikatzeko eta kulturak ezagutzeko tresna dut.

**Oso gogoan dute Georgiaren iragan sobietarra, eta zauri pertsonal asko dago ustelkeriaren ondorioz**

### Bueltatuko zara Zaldibarrera?

Etxera aldi baterako bueltatuko naiz, oportetan. Londresetik eta Irlandatik bueltan konturatu nintzen Zaldibar ez zela bizitzeko toki bat niretzat. Mundua gauza berriak ezagutzeko dugun beldurra bezain handia edo txikia da. Amak bidaiatzea gura nuke, bizi izan naizen tokiak ezagutzea. Etxera noanean, aitaren eta anaia Ahmed-en hutsunea igartzen dut gehien. Baserrian egiten genituen familia bazkarietan ere asko akordatzen naiz, Mikelegaz egiten nituen gosarietan Durangon, eta amaren bazkarietan, jakina!

### Munduan bidaiatzen jarraituko duzu?

Non gogoan, han zangoa. Zaldibar maite dut, baina leku txikia infernu handia (barrez).

### Nora joan gura zenuke?

Kanada bisitatuko nuke, hango lagunak ikusteko. Europa iparraldea, Hegoafrika, Grezia... Basamortura ere bueltatu gura nuke. Datorren urtean, Albanian irakatsi gura nuke, baina batek daki. Pauso bakoitza ematen ahalegintzea da helmuga.

## Lau-hortza

Mertxe Mujika Errugbia



### Entzuten duguna gara!

Atzean utzi ditugu udaberriko atsedeen egunak, eta konturatu orduko uda giroan sartuko gara. Zantzu guztien arabera, uda beroa dugu aurrean. Inguruan bizi garenok badugu, baina, nora joan beroari aurre egiteko: hondartzak, pagadiak, erreka bazterrak, herriko igerilekuak...

Ni ez naiz aspaldian egon inguruetako igerilekuetan, baina ondo gogoan daukat duela urte batzuk behin baino gehiagotan joaten nintzela egun edo arratsalde pasa etxe ondoko igerileku publiko zein pribatu batzuetara. Halaber, gogoan iltzatuta daukat igerilekuetako megafonietatik barreiatzen zen musika: nagusiki euskara ez zen beste hizkuntzaren batean.

Aurrekoari tiraka, badut kontu bat helarazteko igerilekuetako kudeaketa hartuko dutenei: hausnartu apur bat ea zer eskainiko diezuen bertaratu direnei, hau da, ea zabalik egongo diren ordu guztietan ze musika eta zein hizkuntzatan jarriko duzuen. Jakin badakit jendartearen musika gustuak anitzak direla, horregatik ez naiz ausartuko euskaraz bakarrik jartzeko eskatzera; baina, euskal musikari behar eta merezi duen tokia egiteko beharra jarriko dut mahai gainean. Duda barik, euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, musika estilo ugari dago, belarri eta gustu guztietarako gozagarria. Hartara, igerilekuetara joaten garenok ohartuko gara euskaraz ere bizi den herri batean gaudela. Horrekin, megafoniatik barreiatuko den soinu banda euskara zabalduko da, eta mesede ederra ekarriko digu; izan ere, susmo osoa daukat erabiltzaileen aldetik barreiatuko dena, zoritxarrez, ez dela euskara nagusiki izango.

**SAN ROKE BARRIA**

**ONGI ETORRI SAN ROKE BERRIRA**

**Eskuratu zure etxe berria Durangon**

**Gozatu eremu komun zoragarriez.**

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea, 1 Durango

**sukia** 946 46 20 41  
Zure etxean zaude. Estás en tu casa [www.sukia.com](http://www.sukia.com)

Gimnasio

Pilates

Parking

Coworking

Ludoteka